

---

**ESTRUKTURA**

---

Hormigoi armatuzko estruktura.

Hormigoi talotxatuzko zolata eta lauza, eta hormigoi armatuzko hormak garajeetan.

---

**FATXADAK**

---

Hormigoizko panel aurrefabrikatuzko fatxada.

Fabrikako adreiluzko fatxada zeramika materialez aireztatutako fatxadaz estalia.

Poliuretano proiektatzearen, aire-kamararen eta laminatutako 15 mm-ko igeltsu plaka eta 46 mm-ko galbanizatutako altzairu profileria duen eta mineral zuntz muntagen arteko 4 cm-ko isolatzea duen barne-orriaren bitarteko isolamendua.

Gune klimatikoaren, transmitantzia termikoaren, iragazgaitasun-mailaren, kanpora zabaltze eta suaren aurkako erresistentzia baldintzen, tarteei dagokien erabileraren inguruko segurtasun baldintzen, babes-elementu eta elementu irtenen, eta hezetasunaren aurkako Babeserako DB-HS-1, Ura husteko DB-HS-5, energia-eskaria mugatzearen DB-HE-1, Kanpora Zabaltzearen DB-SI-2, erorketa arriskuari aurre egiteko Segurtasunerako DB-SU-1, kolpatze eta harrapatze arriskuari aurre egiteko DB-SU-2 eta eraikinen baldintza akustikoentzako DB-HR oinarrizko dokumentuek jasotako isolamendu akustikoen oinarrizko parametroak betetzea.

---

**ESTALKI eta TERRAZAK**

---

Hormigoizko lauza gaineko alderantzikatutako sistemadun estalkia.

Betun elastomerozko bi laminazko isolamendua.

Terminazio-zoladura edo legar-geruza.

---

**BARRUKO HORMAK**

---

Barruko banaketa trenkadaz, laminatutako 15 mm-ko bi igeltsu plakaren bitartez, 46 mm-ko altzairu galbanizatu profileriadunak eta mineral zuntz muntagen artean 4 cm-ko isolatzea dutenak (15+46+15 mm), aplikatu beharreko isolamendu termiko eta akustikorako araudian (CTE) ezarritako parametroak betetze aldera.

Etxebizitzaren arteko mehelinak 16 cm-ko hormigoizko adreilu trasdosatuen bitartez, 15 mm-ko igeltsu laminatuzko plaka bi aurpegietan, altzairu galbanizatuz egindako 46 mm-ko profileria eta mineral zuntzez egindako muntagen arteko 4 cm-ko isolamendua (15+46+160+46+15 mm), aplikatu beharreko isolamendu termiko eta akustikorako araudian (CTE) ezarritako parametroak betetze aldera.

Elementu arruntez egindako bereizketa etxebizitzaren barrualderako 15 mm-ko igeltsu laminatu plaka bakoitzeko 16 cm-ko hormigoi estradosatuzko adreiluak eginda, 46 mm-ko altzairu galbanizatuzko profileriadun eta zuntz mineralez egindako muntagen arteko isolamendua 4 cm-koa duena, aplikatu beharreko isolamendu termiko eta akustikorako araudian (CTE) ezarritako parametroak betetze aldera.

Transmitantzia termiko eta isolamendu akustikorako energia-eskaria mugatzeko DB-HE-1, Kanpora Zabaltzearen DB-SI-2 eta eraikinen baldintza akustikoentzako DB-HR oinarrizko dokumentuek jasotako oinarrizko parametroak betetzea.

## **ZOLADURAK eta ESTALDURAK**

---

### **Etxebizitzak**

---

Barruko banaketetan zeramikazko zoladurak.

Zoladuraren azpian xafla akustikoa kokatzea.

Zeramikazko lauza txiki irristagaitzezko esekileku eta balkoi zoladunak.

Material zeramikoz alikatatutako gela hezeak.

Margotzeko prestatu diren igeltsuz atondutako horma eta sabaiak, sabai aizunetan ezik.

Barne-pintura plastiko zuri lisoa.

### **Atari eta Elementu komunak**

---

Material zeramikozko zoladurak.

Pintura plastiko zuri lisoko akabera duten igeltsu proiektatuzko hormak.

Pintura plastiko zuri lisoko akabera duten igeltsu proiektatuzko sabaiak, edo igeltsu ijeltuzko xaflaz egindako sabai aizunak.

### **Trastelekuak**

---

Hormigoi talotxatuzko zolata eta lauza.

Ageriko hormigoizko hormak edo ageriko hormigoizko blokea.

### **Garajeak**

---

Hormigoi talotxatuzko zolata eta lauza.

Ageriko hormigoizko hormak edo ageriko hormigoizko blokea, eta seinaleztapen-zerrendak margotuta.

## **KANPOKO ALDEKO AROTZERIA**

---

### **Etxebizitzak**

---

Aluminiozko kanpo-arotzeria irekierarekin, zubi termikoaren hausturaduna eta climalit motako beirarekin.

Aluminiozko pertsiana biribilgarriak.

### **Elementu komunak**

---

Zubi termikoaren hausturarik gabeko aluminiozko kanpo-arotzeria.

## **BARNEKO AROTZERIA**

---

Suaren aurkako ate metalikoak atarte independenteetan eta gela teknikoetan.

Etxebizitzetarako sarreretan melamina aglomeratuzko segurtasun-ateak.

Melamina aglomeratu zuriko barne-ate albeolatuak.

## **ERREMENTARITZA**

---

### **Garajeetako ateak**

---

Altzairu galbanizatuzko kanpo-ateak, toles-altxagarriak eta motordunak.  
Garaje pribatuetako ate baskulatzaileak, goian eta behean xaretarekin.

### **Barandak eta babesgarriak**

---

Balkoietako barandek segurtasun-beirazko gorputza izango dute,

Elementu komunetako barandak pintura onartzen duten altzairuzkoak edo galbanizatuak.

## **IGOGAILUAK**

---

Xafla lakatuzko ateak solairuetan.

Kabinaren zoladura PVCkoa, eta koloretako taula geruzatuzko hormak.

Sabaiak, aginte-panela eta kabinako atea altzairu herdoilezinezkoak.

Polikarbonatozko argiztapen ahurra.

## **ALTZARIAK**

---

### **Sukaldeko altzariak**

---

Beheko eta gaineko altzariak, bitrozeramika-xaflezko sukaldeak, labe elektrikoa, estalkirantz hodi bereziaz duten ke-kanpaiak, hozkailuak, garbigailuak, ontzi-garbigailuak eta mikrouhin-labeak.

## **INSTALAZIOAK**

---

### **Iturgintza eta Gailu sanitarioak**

---

Polietileno erretikulatuzko hodian instalazioa eta ur-hornidura.

Aginte bakar kromatuzko iturriak.

Portzelana beiratzatu zuriko gailu sanitarioak.

Esmalte zurizko bainuontziak.

### **Berogailuak eta UBS**

---

Berogailu eta UBS sistema independenteak, gas naturalerako banakako hormako galdarak eta ur sanitarioa berotzeko eguzki-energia jasotzeko sistema komuna.

Zoru bero-emailea.

## **Saneamendu-sarea**

---

Estalkiranzko aireztapen gurutzatua eta bereizketa-sistema duen saneamendu-sarea.

Hustubideak biltzen dituen barne sarea, PVC zurrun eta hosgabetuzko hodiak, araudiarekin bat datozen lodieradunak.

Euri-urak jasotzeko PVCko teilatu-hodiak eta zorrotanak Eraikinaren kanpoko aldean, eskura dauden guneeetan altzairu galbanizatuz babestuak.

## **Sare elektrikoa**

---

IBERDROLA SAK hornitutako energia trifasikoa, 380V-eko tentsio nominala.

Batez besteko elektrifikazio-maila kontuan hartuta egindako instalazio elektrikoa, REBT-en arabera eta MI. BT jarraibide osagarriak aintzat hartuta.

Etxebizitza bakoitzeko potentzia 5,5 kw-ekoa.

## **Telekomunikazioak**

---

Eraikinetarako telekomunikazioen azpiegitura komunei buruzko eta telekomunikazioetarako gailu eta sistemen instalazio-jarduerari buruzko Araudiaren arabera telekomunikazio-instalazioa.

TB+RDSI, TLCA eta RTV hartuneak bizitzeko egokiak diren geletan.

Erreserba-hartuneak gainerako gela bizigarrietan.

Bideo-atezain instalazioa.

## **OHARRA**

---

Proiektua garatzeko Eskumena duen Zuzendaritzaren esku dago, arrazoi tekniko edo administratiboak medio, etxebizitzaren banaketan, dimentsioetan, azalaretan edota materialetan aldaketak egiteko aukera, beti ere materialen kalitatea gutxitzea eragiten ez badu.